

# Harkaitz Cano

## «Munduak daraman martxak etengabe krisian sarrarazten nau»

“Bizitza da erresumarik zabalena / eta nik / nik besoak baino ezin zabaldu” idatzi zuen duela urte batzuk Harkaitz Canok (Lasarte-Oria, 1975). Geroztik bizitza zatiak beso artean bildu eta papereratu nahian dabil. Lehen liburua kaleratu zuenetik urte mordoxka joan da, eta honezkero puska asko bildu ditu bere obretan. Azkenetako bat hurrengo asteko ARGIArekin batera iritsiko zaizue irakurleoi: *Hipotesiak gordinkeriaz* ipuina.

**GORKA BEREZIARTUA**

Argazkia: Dani Blanco

Ipuin bat ekarriko diguzu ARGIAra, udako azken zenbakirako. Hori ote urtaro honetako berezko generoa?

Ezezkoan nago. Udan, urtean zehar pilatutako adreilutzarrak irakurtzen ditugula esango nuke. Hamakak, Karibeak eta hegazkin bidaia luzeek nobela eskatzen dute.

Askotan esan izan duzu ipuina duzula literatur genero guztien artean gustukoen. Baina ipuingileek behin baino gehiagotan aldarrikatu behar izaten duzue zuen lana. Bigarren mailako generoa delako aurreiritzia zabaldu samarra dagoelakoan nago... Zer iruditzen zaizu hori guztia?

Ez dakit ba... Irudipena daukat euskal irakurle-goaren zati batek dezente estimatzen duela



ipuina genero bezala. Inguruko literaturetan baztertuago dago.

Zuk esana da: “Nobelagileari maleta bat egiteko esan eta mudantza bat antolatuko dizu.

## Harkaitz Cano

erdiko kaiera

Ipuingileak ez: behar duen doia baino ez du honek maletan sartuko". *Hipotesiak gordinke-riaz* ipuinak nolako ekipaia eskatu dizu?

Irratia eta ispilua eskatu dizkit inguruan zer egosten den entzun eta ikusteko. Eta nerbioa ere bai. Martxan dagoen ipuin bat da, martxan dagoen errealitate baten gainean idatzia. Kontraesanez, asimetriaz eta zalantzaz betetako narrazio bat egin nahi izan dut, bastidoreak agerian uzten dituen. Hasiera-korapiloa-amaiera egitura baino, korapiloarekin hasi, korapiloarekin jarraitu eta korapiloarekin amaitzen den ipuin bat. Maleta kaotiko samarra, beraz!

Irudipena daukat ipuin honen hasierako intentzioa ez zela indarkeriarekin loturiko istorio bat kontatzea. Azken urte honetako gaurkotasanun eragina izan duela, alegia.

Indarkeriaren zenbait albo-ondorio fikzionatzea zen asmoa, baina ipuina erabat ezberdina izango zen azken hilabeteotako zenbait gertaera jazo ez balira, dudarik ez. Ni behintzat, munduak daraman martxak, etengabe krisian sarrarazten nau fikzioa egiteko zenbait ikuspuntu eta gaien zentzuari buruz. Yemengo gertaerak, adibidez, fikzio-

“Kontraesanez, asimetriaz eta zalantzaz betetako narrazio bat egin nahi izan dut, bastidoreak agerian uzten dituen”

an irakurri izan bagenu, ziur norbaitek errealismo eza leporatuko ziela.

Narratzaileen arteko jokoa aurkezten du ipuinak. Baina narratzailea, berez, bat eta bakarra da, eta istorioaren gako garrantzitsuenetakoa da. Zer kontatzen den baino nork kontatzen duen da inportanteena?

Narratzaile adina istorio dago. Baina narratzailea nortasun anitzekoa ere izan daiteke, ez du beti zertan pertsona fidagarria izan. Nire asmoa, elkarri txanda kendu nahi dioten narratzaile batzuen arteko norgehiagoka kontatzea zen.

“Badakik ez zaiela gustatzen gu ezer idazten ibiltzea”. Oraindik ere arauen kontra egiteko modu bat da literatura? Galderak egiteko modu bat da. Baita arauari buruzko galderak ere.

Euskadi Saria irabazi zenuen duela bi urte. Zer iritzi duzu azken aldian izan dituzten kritikez?

Dena hobetu daitekeela eta hobetu behar dela. Dena dela, apur bat desproporzionatua iruditu zait polemikaren tamaina, sariaren neurriaren ondoan. Horrelako polemika batek, sari mardulagoa merezi zuen. Eurotan, esan nahi dut. ■

Jaso astero **ARGIA** etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak: .....  
 Helbidea: ..... Posta kodea: ..... Hertia: .....  
 Herrialdea: ..... Jaioteguna: .....  
 N.A./I.F.K.: ..... Tel./Faxa: ..... e-posta: .....  
 Ordainketa mota:  Bankuz  
 Taloez  
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647  
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik  
 Banku edo aurrezki kutxa: .....  
 Titularra: ..... N.A./I.F.K.: .....  
 Titularraren helbidea: ..... Titularraren telefonoa: .....  
 Entitateak: \_\_\_\_\_ Sukurtsala: \_\_\_\_\_ K.D.: \_\_\_\_\_ Kontu zenbakia: \_\_\_\_\_  
 Data: ..... Sinadura: .....

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 PK. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–

## Aukeratu ongi etorri oparia

“Ardibidez” mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Mokogorri” puzzleak

%25eko beherapena ikasle bazara

**Urtebeteko harpidetza:**  
2007ko prezioak

**130 €** Hego Euskal Herrian  
**160 €** Ipar Euskal Herrian

